

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AIARAKO UDALA

Familiei laguntzak emateko 2025eko deialdia eta oinarri arautzaileak, Euskal Autonomia Erki-degoko udalerrietako udal kiroldegietako bazkide kuotak (banakakoak nahiz familiakoak) ordaintzeko

Udal honek, alkatearen 2025eko apirilaren 11ko 176/2025 Dekretuaren bidez, erabaki hau hartu du:

Lehenengoa. Onestea EAEko udalerrietako udal kiroldegietako bazkide kuotak (banakakoak nahiz familiakoak) ordaintzeko familiei laguntzak emateko 2025eko deialdia (2024ko urtarritetik abendura ordaindutako kuotak).

Bigarrena. Onestea EAEko udalerrietako udal kiroldegietako bazkide kuotak (banakakoak nahiz familiakoak) ordaintzeko familiei laguntzak emateko 2025eko oinarri arautzaileak (2024ko urtarritetik abendura ordaindutako kuotak).

Foru Dekretu honen eranskinean jasotzen dira deialdiaren oinarriak.

Hirugarrena. Deialdi honen laburpena Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratzea.

Laugarrena. Oinarriei publizitatea ematea, ALHAOn, udaleko iragarki taulan eta udalaren web orrian testu osoaren iragarkia jarrita.

Bosgarrena. Dekretu hau udalbatzari jakinaraztea, egiten duen lehenengo bilkuran.

Bat etorri urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1 artikuluan xedatutakoarekin, oinarri horiek argitaratzen dira, guztiek haien berri izan dezaten.

Familiei laguntzak emateko 2025eko oinarri arauak, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietako udal kiroldegietako bazkide kuotak (banakakoak nahiz familiakoak) ordaintzeko.

1. artikulua. Xedea eta helburua

Oinarri hauen xedea da Aiarako Udalak 2025. urtean emango dituen dirulaguntzen prozedura arautzea, hain zuzen ere familiei laguntzak emateko, Aiaran erroldatuta daudenei EAEko udalerrietako udal kiroldegietako bazkide kuotak (banakakoak nahiz familiakoak) eragindako gastua zati batean ordaintzeko. Kuotak 2024an ordaindutakoak izango dira.

Dirulaguntza eskuratu ahal izateko, derrigorrezkoa izango da jarduera horiek Aiarako Udalak eskainitakoak ez izatea eta, oster, EAEko udalek edo haien mendeko erakunderen batek ematea.

Ez dira diruz lagunduko instalazioetan egiten diren kirol jarduerak edo bestelako erabilerak.

Laguntzak norgehiagoka bidez emango dira.

Dirulaguntza hauek emango dira EAEko udalerrietako udal kiroldegietako bazkide kuotak (banakakoak nahiz familiakoak) ordaintzeko familiei laguntzak ematea arautzen duen ordenantzaaren arabera, zeinaren azken aldaketa Aiarako Udalak onetsi eta ALHAOn argitaratu baitzen 2020ko urtarilaren 27ko 10. zenbakian.

Honako hauek ere aplikatuko zaizkie: Aiarako Udalak onetsi duen Udal Dirulaguntzak Emateko Prozedura Arautzen duen Ordenantza Orokorra; otsailaren 7ko 3/1997 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei eta Transferentziei buruzkoa; azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Dirulaguntzei buruzkoa, eta aplika daitekeen legeria osagarria.

2. artikulua. Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa

Kontzeptu hori dela eta eman beharreko laguntzen zenbatekoa ez da, guztira, 4.283,90 euro baino gehiago izango eta 2024koa izan eta 2025era luzatutako indarreko aurrekontuaren 341.480.000 partidaren kontura finantzatuko da.

3. artikulua. Dirulaguntza eskatzeko baldintzak eta frogatzeko modua

Betekizun hauek betetzen dituen edozein pertsonak eska dezake dirulaguntza:

a) Diruz lagunduko den jarduera hasi aurretik, gutxienez 6 hilabetez segidan Aiarako udalerrian errolatuta egotea. (Udalak berak egiaztatuko du hori ofizioz).

b) Foru Ogasunarekiko zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia-
rekikoak egunean izatea. Aiarako Udalak, eskuragarri dauden datuen bitartekaritza sistemen bidez, Administrazioaren esku dauden datuak egiaztatu eta kontsultatzeko eragiketak egingo ditu, salbu eta zuk horren aurka zaudela adierazten baduzu; kasu horretan, aipatutako erakunde-
deen agiriak aurkeztu beharko dituzu.

c) Aiarako Udalaren diru kutxetan egin beharreko ordainketak egunean izatea. (Udalak berak egiaztatuko du hori ofizioz).

4. artikulua. Instrukzio egiteko eta ebazteko organo eskuduna

Alkate-lehendakariak izango du laguntzak izapidetzeko eta ebazteko eskumena, kasuan kasuko informazio batzordearen txostena jaso ondoren.

5. artikulua. Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko 30 egun naturaleko epea izango da, deialdi hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera.

6. artikulua. Ebazteko eta jakinarazteko epea

Eskaerak ebatzi eta jakinarazteko gehieneko epea bost hilabetekoa izango da, eskaerak udalean aurkezteko epea amaitzen denetik aurrera.

Laguntzak eman edo ukatzen dituen ebazpenak administrazio bidea amaituko du eta haren aurka berraztertze-
ko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio hura eman duen organoari; bestela, administrazioarekiko auzi bidera jo daiteke.

7. artikulua. Eskaerarekin batera aurkeztu behar diren agiriak

Agiri hauek aurkeztu behar dira:

- Eskatzailearen NANaren fotokopia.
- Familia liburuaren fotokopia, non jasotzen diren eskatzailearen eta adingabe onuradun(ar) en datuak.
- Hala badagokio, adingabe onuradunaren legezko zaintza emateko hartutako ebazpena.
- Erakundearen jatorrizko ziurtagiria (kiroldegia berak edo udalak edo kiroldegia kudeatzen duen erakundeak egina), non jasotzen den onuradunak ordainduta dituela kuota guztiak. (Amurrio eta Laudioko udalerrien kasuan, Aiarako Udalak berak eskatuko du).
- Jarduera egiten den herriko udalaren edo haren mendeko erakundearen ziurtagiria, non agertzen den zein den jarduera egiteagatik ordaindu beharreko tasa edo tarifa. Halaber, adierazita egon behar da udalerri horretan errolatutakoek eta errolatuta ez daudenek zein tarifa ordaindu behar duten. (Amurrio eta Laudioko udalerrien kasuan, Aiarako Udalak berak eskatuko du).

- Beste dirulaguntza batzuen berri emateko adierazpena (I. eranskina).
- Debekuen eraginpean ez egoteari buruzko adierazpena (II. eranskina).
- Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatearen ziurtagiria. Aiarako Udalak, eskuragarri dauden datuen bitartekaritza sistemen bidez, Administrazioaren esku dauden datuak egiaztatu eta kontsultatzeko eragiketak egingo ditu, salbu eta zuk horren aurka zaudela adierazten baduzu; kasu horretan, aipatutako erakundeek agiriak aurkeztu beharko dituzu (III. eranskina).

8. artikulua. Laguntzen balioespen irizpideak

Hauxe izango da, gehienez, dirulaguntzaren zenbatekoa: udalak edo haren mendeko erakundeak udalerrri horretan erroldatutakoei aplikatzen dizkien tarifen eta onuradunari aplikatzen dizkion tarifen arteko aldearen ehuneko 100.

Udalaren urteko aurrekontuetan xede horretarako partidan dagoen kopurua egiaztatutako eskaera guztiak betetzeko aski ez balitz, proportziozko banaketa egingo da baldintzak betetzen dituzten eskatzaile guztiek laguntzaren kontzeptuan diruz lagundu daitekeen kostuari dagokion proportziozko ehuneko bera jaso dezaten.

Dirulaguntzen guztizko zenbatekoak, beste erakunde publiko edo pribatu batzuetatik xede berarekin lortutakoak barne, ezingo du inolaz ere diruz lagundutako zenbatekoa gaintitu. Dirulaguntza ematen duen organoak berraztertu egin ahal izango du onetsitako dirulaguntza, beste erakunde batzuek beren laguntzak eman ondoren, edozein motatako gainfinantzaketa galarazteko.

Arespalditza, 2025eko apirilaren 14a

Jarduneko alkatea

MIREN KARMELE POBLACIÓN MARTÍNEZ



**FAMILIENTZAKO DIRULAGUNTZA ESKAERA, EUSKAL AUTONOMIA
ERKIDEGOKO UDALERRIETAKO UDAL KIROLDEGIETAKO BAZKIDE
KUOTAK (BANAKAKOAK NAHIZ FAMILIAKOAK) ORDAIN DITZATEN**

SOLICITUD DE SUBVENCION A LAS FAMILIAS PARA EL PAGO DE LAS CUOTAS DE SOCIO
(INDIVIDUAL O FAMILIAR) DE LOS POLIDEPORTIVOS MUNICIPALES DE LOS
AYUNTAMIENTOS DE LA COMUNIDAD AUTONOMA DEL PAIS VASCO

ESKARIA AURKEZTEN DUEN PERTSONA / PERSONA QUE PRESENTA LA SOLICITUD				
1. abizena / 1.º apellido		2. abizena / 2.º apellido		izena / Nombre
☐ Interesduna naiz / Soy la persona interesada		Sexua / Sexo	Giz. / Hom. ☐	Ema. / Muj. ☐ Bestel. / Otras ☐
☐ Hau ordezkatzten dut: / Represento a:				
Ordezkatuaren NAN-AIZ-Pasaporte-IFZ:/DNI-NIE-Pasaporte-NIF del representado/a:				
JAKINARAZPENAK / NOTIFICACIONES (según Ley 39/2015 Legearen arabera)				
☐ Elektronikoki (ziurtagiri digitala behar da) / Electrónicamente (se necesita certificado digital)				
E-posta (abisuetarako) / E-mail (para avisos)				
☐ Posta arruntaz / Por correo ordinario				
Kalea / Calle		Zk. / N.º	Solairua/Piso	Aldea / Mano
P.K. / C.P.	Herria / Municipio	Probintzia/ Provincia		E-posta / E-mail
BANKUKO DATUAK / DATOS BANCARIOS				
Kontu korrontearen IBAN kodea / Código IBAN de la cuenta				
ONURADUNEN DATUAK / DATOS DE LOS BENEFICIARIOS				
IZEN-ABIZENAK NOMBRE Y APELLIDOS	N.A.N. D.N.I.	KIROLDEGIA/UDALERRIA POLIDEPORTIVO/MUNICIPIO	BANAKAKO ETA FAMILIAKO KUOTA CUOTA INDIVIDUAL O FAMILIAR	
Adierazten du / Expone				

- Bete egiten dituela Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietako udal kiroldetegietako bazkide kuotak (banakakoak nahiz familiakoak) ordaintzeko Aiarako Udalak familiiei laguntzak ematea arautzen duen ordenantzan ezarritako betekizunak.

- Que cumple con los requisitos establecidos en la Ordenanza Reguladora de la concesión de Ayudas del Ayuntamiento de Alara-Ayala a las familias para el pago de las cuotas de socio (individual o familiar) de los polideportivos municipales de los Ayuntamientos de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Horregatik guztiagatik, dirulaguntza ESKATZEN DUT, ordenantza arautzailearen arabera.

Por todo lo anteriormente expuesto, SOLICITO, la subvención correspondiente de acuerdo con la Ordenanza Reguladora de la concesión.

Data / Fecha:

Sinadura Digitala (klik eransteke) / Firma Digital (Clic para adjuntar)

Eskuzko izenpea / Firma Manual

AIARAKO UDALEKO ALKATE-UDALBURU JAUNA.
SR. ALCALDE PRESIDENTE DEL AYUNTAMIENTO DE AYALA.

LFK CLE P0101100F

✉ BºLa Iglesia, 3 - 01476 Arespalditza (Araba) - ☎ 945399013 - 📠 945399331 - 🖨 info@aiarakoudala.eus - 🌐 www.aiarakoudala.eus

ERANTSITAKO AGIRIAK: / SE ADJUNTA:

- ☐ **Eskatzailearen NANaren fotokopia.** / Fotocopia del DNI del solicitante.
- ☐ **Familia liburuaren fotokopia, non jasotzen diren eskatzailearen eta adingabe onuradunen datuak.** Fotocopia del Libro de Familia comprensiva de los datos del solicitante y del menor o menores beneficiarios.
- ☐ **Hala badagokio, adingabe onuradunaren legezko zaintza emateko hartutako ebazpena.** En su caso, Resolución que otorga la custodia legal del menor beneficiario.
- ☐ **Erakundearen jatorrizko ziurtagiria (kiroldegia berak edo udalak edo hura kudeatzen duen erakunde autonomoak egina), non jasotzen den onuradunak ordainduta dituela kuota guztiak.** (Amurrio eta Laudio udalerrien kasuan, Aiarako Udalak berak eskatuko du). Certificado original de la entidad (polideportivo o en su caso, Ayuntamiento u organismo que lo gestione) indicando que el beneficiario ha satisfecho todas las cuotas. (En el caso de los municipios de Amurrio y Llodio se solicitará por el propio Ayuntamiento de Ayala).
- ☐ **Jarduera egiten den herriko udalaren edo haren mendeko erakundearen ziurtagiria, non agertzen den zein den jarduera egiteagatik ordaindu beharreko tasa edo tarifa.** Halaber, idatzita egongo da udalerrri horretan erroldatutakoek eta erroldatuta ez daudenek zein tarifa ordaindu behar duten. (Amurrio eta Laudio udalerrien kasuan, Aiarako Udalak berak eskatuko du). / Certificado del Ayuntamiento u organismo dependiente de él en el que se realice la actividad, comprensivo de la tasa o tarifa que debe abonar por la realización de la actividad indicando cuál es la tarifa o tasa que corresponde a un empadronado en ese municipio y cuál es la que corresponde a un no empadronado en ese municipio. (En el caso de los municipios de Amurrio y Llodio se solicitará por el propio Ayuntamiento de Ayala).
- ☐ **Beste dirulaguntza batzuen berri emateko adierazpena. (I. eranskina).** / Declaración sobre existencia de otras subvenciones. (Anexo I).
- ☐ **Debekuen eraginpean ez egoteari buruzko adierazpena (II. eranskina).** / Declaración de no estar incurso en prohibiciones. (Anexo II).
- ☐ **Administrazio aginpidedunak egindako ziurtagiria, non jasotzen den eskatzaileak egunean dituela Gizarte Segurantzarekiko eta Ogasunarekiko betebeharrak edo, bestela, Aiarako Udalak egiaztapenaren aurka ez egitea. (III. eranskina).** / Certificado acreditativo de estar al corriente de pago de los impuestos de la Hacienda Foral y con la Seguridad Social relativos al solicitante, o en su caso, no oponerse a la comprobación por parte del Ayuntamiento de Ayala (Anexo III).

DATUEN BABESA

Jakinazten dizuegu zuen datuen tratamendua sartu egingo dela Espedienteak izeneko jarduera-erregistroan, AIARAKO UDALA -Ayuntamiento de Ayala erakundearen erantzukizunpean (helbidea: Elexalde auzoa 3, 01476 Arespalditza - Araba; telefono-zenbakia: 945 39 90 13; harremanetarako helbide elektronikoa: info@aiarakoudala.eus; eta IFK: P0101100F). Tratamenduaren xedea izango da udal-jarduera orokorraren administrazio-kudeaketa, eta datuak Administrazio Publikoko beste organo batzuei ere laga ahalko dizkio. Interesdunek datuak eskuratzeko, aurka egiteko, zuzentzeko, mugatzeko edo ezabatzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzte, bai eta informazioa hedatzeko ere. Horretarako, idatzi bat igorri beharko dute helbide honetara: Aiarako Udala (Eliza auzoa 3, 01476 Arespalditza); edo helbide elektroniko honetara: dpd-dbo@aiarakoudala.eus. Datuak babesteko arloan eskumena duen Agintaritzara jo nahi izanez gero, honako hau da helbide elektronikoa: avpd@avpd.eus

PROTECCIÓN DE DATOS

Se les informa que el tratamiento de sus datos se incluirá en el Registro de Actividad denominado Expedientes bajo la responsabilidad de AIARAKO UDALA -Ayuntamiento de Ayala, Barrio La Iglesia, nº 3, 01476 · Respaldiza (Álava), con teléfono: 945 39 90 13, correo electrónico de contacto: info@aiarakoudala.eus y CIF: P0101100F. Su finalidad se circunscribe a la gestión Administrativa de la actividad municipal de carácter general, pudiendo ceder sus datos a otros Órganos de la Administración Pública. Las personas interesadas podrán ejercitar los derechos de acceso, oposición, rectificación, limitación y supresión, así como ampliar la información, dirigiéndose por escrito a la siguiente dirección: Ayuntamiento de Ayala-Aiara, Barrio la Iglesia nº 3, 01476 Respaldiza; o a través de la dirección de correo electrónico: dpd-dbo@aiarakoudala.eus. Si desea acudir ante la Autoridad competente en protección de datos, su dirección electrónica es: avpd@avpd.eus

I.F.K. C.I.F. P0101100F

✉ BºLa Iglesia, 3 - 01476 Arespalditza (Araba) - ☎ 945399013 - 📠 945399331 - 📧 info@aiarakoudala.eus - 🌐 www.aiarakoudala.eus



Aiarako Udala
Ayuntamiento de Ayala

3.03

**FAMILIENTZAKO DIRULAGUNTZA ESKAERA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
UDALERRIETAKO UDAL KIROLDEGIETAKO BAZKIDE KUOTAK (BANAKAKOAK NAHIZ
FAMILIAKOAK) ORDAIN DITZATEN**

SOLICITUD DE SUBVENCION A LAS FAMILIAS PARA EL PAGO DE LAS CUOTAS DE SOCIO
(INDIVIDUAL O FAMILIAR) DE LOS POLIDEPORTIVOS MUNICIPALES DE LOS AYUNTAMIENTOS DE
LA COMUNIDAD AUTONOMA DEL PAIS VASCO

I. ERANSKINA / ANEXO I

D./D^a [redacted] **jaunak/andreak,**
nire erantzukizunaren pean, honakoa ADIERAZTEN DUT: / DECLARO, bajo mi
responsabilidad que:

☐ **EZ, ez dut eskatu beste dirulaguntzarik eskaera honetan jasotako**
jarduerarako. / Que NO he solicitado ninguna otra subvención para la misma
actividad que se solicita con esta petición.

☐ **BAI, beste dirulaguntza batzuk eskatu ditut eskaera honetan jasotako**
jarduerarako (erantsi eskaera). / Que SI he solicitado otras subvenciones
para la misma actividad que se solicita en esta petición (adjuntar petición).

Hala bada, datu hauek bete behar dira: / En este caso, se deberá rellenar los
siguientes datos:

- Dirulaguntza erakunde honi eskatu zaio:/ Organismo al que se solicita:

[redacted] **(Foru Aldundia, Eusko**
Jaurlaritza, eta abar). / (Diputación Foral, Gobierno Vasco, etc....).

- Dirulaguntza onartu bada, adierazi zenbatekoa ([redacted] euro) eta
erantsi ebazpenaren fotokopia. / Si se ha obtenido respuesta a la petición
concediendo la subvención, indicar la cantidad: [redacted] euros. y adjuntar
fotocopia de la resolución.

☐ **Dirulaguntza ukatu bada, jarri X. / Indicar si ha sido denegada.**

Data / Fecha: [redacted]



Sinadura Digital (klik eransteke) / Firma Digital (Clic para adjuntar)

Eskuzko izenpea / Firma Manual

AIARAKO UDALEKO ALKATE-UDALBURU JAUNA.
SR. ALCALDE PRESIDENTE DEL AYUNTAMIENTO DE AYALA.

I.F.K. C.I.F. P0101100F
✉ B^oLa Iglesia, 3 - 01476 Arespalditza (Araba) - ☎ 945399013 - 📠 945399331 - 📧 info@aiarakoudala.eus - 🌐 www.aiarakoudala.eus



Aiarako Udala
Ayuntamiento de Ayala

3.03

**FAMILIENTZAKO DIRULAGUNTZA ESKAERA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
UDALERRIETAKO UDAL KIROLDEGIETAKO BAZKIDE KUOTAK (BANAKAKOAK NAHIZ
FAMILIAKOAK) ORDAIN DITZATEN**

SOLICITUD DE SUBVENCION A LAS FAMILIAS PARA EL PAGO DE LAS CUOTAS DE SOCIO
(INDIVIDUAL O FAMILIAR) DE LOS POLIDEPORTIVOS MUNICIPALES DE LOS AYUNTAMIENTOS DE
LA COMUNIDAD AUTONOMA DEL PAIS VASCO

II. ERANSKINA / ANEXO II

D./D^a.

jaunak/andreak nire erantzukizunaren pean **ADIERAZTEN DUT** ez nagoela
azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren, dirulaguntzenaren, 13. artikulua
jasotzen dituen onura - dun izateko debekuen eraginpean. / DECLARO, bajo mi
responsabilidad que no estoy incurso en ninguna de las prohibiciones para obtener la
condición de beneficiario de una subvención pública, recogidas en el artículo 13 de la
Ley 38/2003 de 17 de noviembre General de Subvenciones.

Data / Fecha:



Sinadura Digital (klik eransteke) / Firma Digital (Clic para adjuntar)

Eskuzko Izenpea / Firma Manual

AIARAKO UDALEKO ALKATE-UDALBURU JAUNA.
SR. ALCALDE PRESIDENTE DEL AYUNTAMIENTO DE AYALA.

I.F.K. C.I.F. P0101100F
✉ B^aLa Iglesia, 3 - 01476 Arespalditza (Araba) - ☎ 945399013 - 📠 945399331 - 📧 info@aiarakoudala.eus - 🌐 www.aiarakoudala.eus



Aiarako Udala
Ayuntamiento de Ayala

3.03

**FAMILIENTZAKO DIRULAGUNTZA ESKAERA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
UDALERRIETAKO UDAL KIROLDEGIETAKO BAZKIDE KUOTAK (BANAKAKOAK NAHIZ
FAMILIAKOAK) ORDAIN DITZATEN**

SOLICITUD DE SUBVENCION A LAS FAMILIAS PARA EL PAGO DE LAS CUOTAS DE SOCIO
(INDIVIDUAL O FAMILIAR) DE LOS POLIDEPORTIVOS MUNICIPALES DE LOS AYUNTAMIENTOS
DE LA COMUNIDAD AUTONOMA DEL PAIS VASCO

III. ERANSKINA / ANEXO III

Datuak kontsultatu - Egiaztatzearen kontrakotasuna
Verificación de datos - Oposición a consulta

Aiarako Udalak, eskuragarri dauden datuen bitartekotza-sistemen bidez, behar diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu administrazioak bere esku dituen datuetan, zuk berariaz kontrakorik esan ezean (**kasu horretan dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko duzu**).

Egiaztapen horren **aurka** bazaude, **markatu X batez**

El Ayuntamiento de Ayala, mediante los sistemas de intermediación de datos disponibles, va a realizar las comprobaciones y consultas necesarias de los datos que obren en poder de la Administración, salvo que usted se oponga expresamente (**en cuyo caso deberá aportar la documentación**).

Si usted se **opone** a dicha verificación **marque con una X**

DATUAK EDO DOKUMENTUAK
DATOS O DOCUMENTO

UKO EGITEN DIOT
ME OPONGO

ARRAZOIA
MOTIVO

Ogasunarekin ordainketak egunean daudela egiaztatzen duen ziurtagiria (AFA) / Certificado de hallarse al corriente de pagos con Hacienda (DFA)

☐

Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean daudela egiaztatzen duen ziurtagiria / Certificado de estar al corriente de pagos con la Seguridad Social

☐

Izen - abizenak / • • • • •

Data / Fecha:

Sinadura Digitala (klik eransteko) / Firma Digital (Clic para adjuntar)

Eskuzko Izenpea / Firma Manual